

92/2024 EBAZPENA, OTSAILEKO 15KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN DEN ADMINISTRAZIOKO ETA ERABILTZAILEAREN ARRETAKO LAGUNTZAILE LANPOSTU BAT, ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN / ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ZUZENDARIORDETZAN.

LANPOSTUA: ADMINISTRAZIOKO ETA ERABILTZAILEAREN ARRETAKO LAGUNTZAILEA.

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia, Giza Baliabideen Zuzendaritza. Lan Harremanen Zerbitzuan.

LANALDIA: Zatitua (Vitoria-Gasteiz)

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: 3. HE derrigortasun-data 2005/06/01.

BETEKIZUNAK:

(Agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta Osakidetza-Euskal zerbitzuko CV aplikazioan badaude).

Eskatzaile guztientzat:

Administrazio-Kudeaketako Teknikariaren titulua edo baliokidea.

Aldi baterako barne-sustapeneko eskatzaileentzat:

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile edo lan-legepeko langile finkoa izatea.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila berekoa edo baxuagokoa den beste kategoria batekoa izatea.
- Ez izatea karrerako funtzionario, estatutupeko langile finko edo lan-legepeko langile finkoko izendapenik Administrazioiko eta Erabiltzailearen Arretako Laguntzailea kategorian, izendapen edo kontratu horrekiko interesdunak daukan egoera administratiboa edozein izanda ere.
- Zuzendaritza Nagusiarik atxikita egotea langile finko gisa, Zuzendaritza Nagusiko langileen barne-sustapenaren kasuan.
- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea langile finko gisa, zerbitzu-erakundeen arteko barne-sustapenaren kasuan.



- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago egotea, etenik gabe.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Osakidetzako zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-legepeko langilea izatea edo Osasun Sistema Nazionalako gainerako osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioa edo estatutupeko langile finkoa izatea Administrazioa eta Erabiltzailearen Arretako Laguntzailea kategorian.
- Zerbitzu aktiboan egotea, eta lanpostuak betetzeko eskaera ez egitea norberak lanpostua jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen zerbitzu-erakundeetan.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA

(agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude):

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan. Behin betiko barne-mugikortasunaren eskatzaileentzat:

Aldi-baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat:

- EPEko oposizio-fasea (gehienez, 100 puntu)
- Lan-esperientzia (gehienez, 80 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Lan-esperientzia, kategoriaren azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera (gehienez, 47,5 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Interesdunek Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), beren datu pertsonal guztiekin, curriculum vitae dokumentuarekin (aplikazio informatikoan baliozkotuta daukatenean izan ezik) eta eskatutako ezagutza espezifikoak egiaztatzeko egokitutako josten duten dokumentazioarekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun balioudunekoa izango da, deialdia webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN-HURRENKERA:

Lanpostua betetzeko lehentasun-hurrenkera honako hau izango da:

1. Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.
2. Zerbitzu-eginkizunak: Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.
3. Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

BALORAZIO BATZORDEA:

Balorazio Batzorde bat eratuko da. Batzordeburua Giza Baliabideen zuzendaria izango da, Giza Baliabideen Hautaketa eta Horniketa zuzendariordea, Giza Baliabideen Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoko zerbitziburua eta Hornikuntza Zerbitzuko burua (azken hori idazkaria izango da).

HAUTAKETA-PROZEDURA:

Balorazio Batzordeak interesdunek behar den garaian eta moduan aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du. Aurrekoa ikusirik, proposamena egingo da dagokion izendapena formalizatzeko. Balorazio Batzordeak lanpostua bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek eskatutako eskakizunak betetzen ez badituzte.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza Zuzendaritza Nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko otsailaren 15an.

 **Osakidetza**

Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA